



## Premio Empar Pineda

Reunido el Jurado de la **III Edición del Premio Empar Pineda a la inclusión de la perspectiva LGTB en los trabajos de fin de grado y fin de máster - Curso 2021/2022-**

Analizados los 11 trabajos presentados a esta convocatoria ha decidido otorgar el Premio Empar Pineda a los trabajos:

En euskera:

**Queer diskurtsoak egungo euskal poesian: Arregi Diaz de Heredia, Borda, Eizagirre, Erro eta Olasagarreren poemak aztergai**

**Bollera bertsolarien bizipenak. Konplexutasunez beteriko oholtzaratzeak**

En castellano:

**Consumo de drogas y salud mental en el colectivo LGTBIQ+**

Accesit:

**Feminismoaren baitan sortutako gatazka trans pertsonen euskubideen aurreproiektu-legearren inguruan**

### En cumplimiento del punto 3 de la convocatoria

El Jurado hará público el resultado de la convocatoria antes del 17 de febrero de 2023 en la página web <https://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/empar-pineda-iii-ediziona> dando cuenta del nombre y apellidos de la persona ganadora, máster al que pertenece, nombre y apellidos de la tutora o tutor y resumen del trabajo o trabajos galardonados.

Ganadoras al trabajo en euskera:

**Aitana Perez Ortiz**

Master en Lingüística y Filologías Vascas (Facultad de Letras)

Tutor y Tutora: Mikel Ayerbe Sudupe eta Mari Jose Olaziregi Alustiza

### **Queer diskurtsoak egungo euskal poesian: Arregi Diaz de Heredia, Borda, Eizagirre, Erro eta Olasagarreren poemak aztergai**

#### RESUMEN

Queer terminoa era askotara baliatu izan da, horien artean, azken urteetan nolabaiteko oihartzuna lortuz joan den queer teoriari lotuta; bai eta queer irakurketa edota literatura deitu izan denaren esparruan ere. Euskal literatur sistemana, queer irakurketaren ikerlerroaren inguruko zenbait artikulu argitara eman ziren XXI. mendeko lehen hamarkadan, horien artean queer irakurketak bildu zituen Desira desordenatuak. Queer irakurketak euskal literaturaz (2010) lan kolektiboa. Hortaz, nahiz eta honen ildotik idatzitako zenbait ikerlan egon badauden, esan daiteke oraindik ere queer kritikagintzak presentzia urria duela euskal literaturan eta, gainera, egindako azterketak gehienbat narratibari buruzkoak izan direla.

Testuinguru honetan, lan honen xede nagusia izan da queer teoriaren planteamenduetatik abiatuta, euskal poesian ageri diren queer diskurtsoak aztertzea, queer gaiak jorratzen dituzten LGTBIQ+ egileen poemategien bidez. Abiapuntu honetatik ikertu izan dira Arregi Diaz de Herediaren Bitan esan beharra (2012), Itxaro Bordaren Orain (1998) eta beste zenbait poema, Juanjo Olasagarreren Bizi puskak (1996) eta Puskak biziz (2000), Angel Erroren Gorputzeko humoreak (2005) eta Ekhine Eizagirreren Alde erantzira nabil (2016) olerki-bildumak.

Ikerketan queer poesia dagokion testuinguru literario eta historikoan kokatzen da, horretarako XX. mendearen amaiera eta XXI. mende hasierara arte zabaltzen den poesiagintzaren bilakaera bilduz eta idazleen garaietako LGTBIQ+ kolektiboaren historia garatuz. Era berean, queer idazleen testuinguru literarioa osatzerakoan, kritikagintzak queer ikuspegiko poema-liburuez egindako lanketa behatu izan da, egileak biltzen dituzten historiografiak, antologiak eta sarien hustuketaren bitartez.

Bestalde, queer teoria izan da olerki-bildumak aztertzerako orduan baliatu den oinarri teoriko nagusia, hain zuzen ere, genero binarismoan eta nahitaezko heterosexualitatea auzitan jartzen dituen filosofia kritikoa. Poemategiez

egindako queer irakurketak baimendu du euskal poesian ageri diren queer diskurtsoak, zein hauetatik bereizten diren diskurtso LGTBIQ+ ak, azpimarratzea eta horien artean ageri diren lotura eta ezberdintasunetan sakontzea.

### **Maider Arregi Markuleta**

Master en Antropología Social (Facultad de Educación, Filosofía y Antropología)

Tutora: Miren Guillo Arakistain

### **Bollera bertsolarien bizipenak. Konplexutasunez beteriko oholtzaratzeak**

#### **RESUMEN**

Ikerlan honetan, egungo euskal testuinguruan bollera bertsolaria izatea zer den aztertu da. Horretarako, zenbait bollera bertsolariren bizipenak aztertu dira, hiru eremu ezberdinietan: (1) bertsolaritzaren testuinguruan, orokorrean (2) bertsolaritzaren eremu feministan, (3) bertsolari bollerentzat espazio eta expresio artistiko propioetan. Jasotako informazioa antolatzeko, lana hiru zatinagusitan banatu da: zati teorikoa, metodologikoa eta analisia. Atal teorikoan, hiru gai orokor landu dira: (1) erregimen heterosexualaren eragina bertsolaritzan, (2) bertsolaritzaren ibilbide feminista, eta (3) bollera kontzeptuaren nondik norakoa. Horien bidez, ikerketa gauzatzeko beharrezkoak diren kontzeptuak argitu dira. Metodologiari dagokionez, metodologia kualitatiboa hautatu da, garrantzia eman nahi izan zaiolako bizen konkretoak sakonki ikertzeari. Zehazki, 5 bertsolari bollerei elkarrizketa sakonak egin zaizkie eta 22 saioren behaketa idatzia jaso da. Horrez gain, behaketa ez-idatziak eta ariketa autoetnografikoak ere baliatu dira ikerlana elikatzeko eta orientatzeko. Azkenik, analisia hiru ataletan idatzi da; hain zuen, ikertu den bertsolaritzako eremu bakoitzeko atal bat eginik. Modu horretan, eremu bakoitzaren zailtasunak eta aukerak agerian geratu dira eta, kasu guztietai, era askotako bizen kontraesankorrak landu dira. Alde batetik, bertsolaritzan bollerismoaz eta bollerismotik kantatzeko oztopoak agertu dira baina, beste aldetik, baita bertan egotea ahalbidetzen duten biziraupen-estrategiak eta gozamen-uneak edo espazioak ere.



Ganador al trabajo en castellano:

**Laín Díez López**

Grado de Medicina (Facultad de Medicina y Enfermería)

Tutora: Sofía Ruiz de Azua García

## **Consumo de drogas y salud mental en el colectivo LGTBIQ+**

### **RESUMEN**

Las personas LGTBIQ+ se desarrollan en un contexto social marcado por el prejuicio y la discriminación y deben hacer frente a un conjunto de dificultades específicas que afectan a su salud mental, y que pueden aumentar el riesgo de consumo de drogas.

El presente trabajo revisa la literatura científica con la finalidad de describir los principales factores psicosociales que afectan al colectivo LGTBIQ+ en relación al consumo de drogas y analizar el papel que cada uno de ellos desempeña y cómo interaccionan entre sí, a fin de presentar un modelo que permita entender de forma global esta compleja realidad.

El estrés minoritario, la discriminación y la homofobia interiorizada, aumentan el riesgo de consumo de drogas en las personas del colectivo y empeoran su salud mental, aumentando el riesgo de depresión, ansiedad y de suicidio. La participación en la comunidad LGTBIQ+ tiene un efecto paradójico, al actuar al mismo tiempo como factor protector, en forma de apoyo social, y como factor precipitante, especialmente a través del ocio nocturno y del chemsex. Estos factores además interaccionan entre sí y con otros factores como la personalidad, la motivación y otros factores psicológicos y socio-demográficos.

De esta forma, las personas LGTBIQ+ se enfrentan a una serie de factores específicos de susceptibilidad que, en un contexto social caracterizado por la ubicuidad de las drogas, puede favorecer el consumo y sus consecuencias sobre la salud física y mental. Es necesario luchar contra la discriminación y construir nuevos espacios de forma que las personas del colectivo puedan desarrollarse y vivir en libertad.

Accesit:



## Arantza Martínez Munita

Grado en Ciencias Políticas y Gestión Pública (Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación)

Tutora: Arantxa Elizondo Lopetegi

### **Feminismoaren baitan sortutako gatazka trans pertsonen euskubideen aurreproiektu-legearen inguruau**

#### RESUMEN

Honako lan honetan, feminismoaren barruan sortu den gatazka Trans pertsonen eskubideen aurreproiektu-legearen ingruan aztertzen da. Helburu nagusia feminismoaren bi korronte ezberdinaren ikuspegia jaso eta aztertzea izan da. Alde batetik, lan dokumentala dago eta bestalde, analisi enpiriko bat, bi tresna metodologiko erabiliz: inkesta eta bi sakoneko elkarritzeta. Bi elkarritzeta horiek feminismoaren bi jarrera ezberdin ordezkatzen dituzte, batek feminismo klasiko bat babesten du eta bestea postura transfeministan kokatzen da. Inkestan aldiz, gazteen iritziak jaso dira, izan ere, gazteak izango dira etorkizuna eta ikus ahal izango dugu nolakoa izango den hauen jarrera etorkizun batean. Analisi dokumentalari dagokionez 2021eko "lege trans" aurreproiektua aztertu da, emandako polemikak aztertuz eta punturik gatazkatsuenetan atentzioa ipiniz.